



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2019ko IRAILAREN 24ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2019ko irailaren 24ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez

ZINEGOTZIAK :
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga
Unai Sorarrain Urruzola
Jose M^a Aranzabe Urruzola
Concepcion Soria Legua

Bere ezin etorria azaltzen dute: Koldobika Jauregi Zinkunegi eta Shrabani Aranzabe Pita

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - ✓ 2019ko uztailaren 24ean egindako ohiko bilkuraren akta.
 - ✓ 2019ko irailaren 20an egindako ez ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Alkizako herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzaren oinarrien onespena, hala bada.**
- 5. Alkizako hondakin urak arazteko plantaren mantenu lanak aurrera eramateko kontratuaren esleipena, hala bada.**
- 6. Perualdea 1 jabetza komunitateak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 7. Beste batzuk.**
- 8. Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- ❖ 2019ko uztailaren 30eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- ❖ 2019ko irailaren 20ko ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 106/2019tik 139/2019ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

GALARREGI ESKABAZIOAK	363,00
LAU HAIZETARA	445,58
M.URANGA	128,02
TOLOMENDI	163,95
EUSKALTEL	119,50
AKETEGI	21,20
RECAMBIOS IBARRA	7,37
MOVISTAR	189,95
MOVISTAR	56,90
MOVISTAR	180,28
MOVISTAR	54,30
ACSOL	47,88
ACSOL	30,77
EDURNE BENGEOA	188,66
ACSOL	116,66
ACSOL	110,58



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ELECTRICIDAD ZIZURKIL	1.074,29
NORTEGAS	43,58
NORTEGAS	12,27
NORTEGAS	16,18
DIONISIO ORMAZABAL	28,01
GASOLEOS ALKORTA	121,00
AMAZON	68,00
DE JOTAS	544,50
EZTEN GIRO	860,00
ARTICAT ARTISTAS	544,50
MARIA GARMENDIA	550,00
ACSOL	568,75
IBERDROLA	22,91
ACSOL	68,12
ACSOL	40,45
ACSOL	58,53
ACSOL	62,74
ACSOL	44,37
ACSOL	47,50
ACSOL	38,14
ARGITU	223,49
ACSOL	120,26
ACSOL	120,90
ACSOL	102,02
KUKU-LORE	87,44
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	521,97
IZADI LABORATEGIA	2.855,60
BULEGOAK	152,76
RENTOKIL	909,47
AKETEGI	27,00
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	172,26
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	242,00
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	5,11
URBIETA TRANSPORTES	163,35
FACTORY LOGISTIKA	1.028,50
GIPUZKOAKO SAGORDILEEN ELKARTEA	174,00
SEBASTIAN LIZASO	260,00
AITOR MENDILUZE	517,65



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ANDONI EGAÑA	260,00
AMETS ARZALLUS	258,82

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **15.241,04** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN OINARRIEN ONESPENA, HALA BADA

Alkate-Lehendakari jaunak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andereak 2019-2020 ikasturterako Alkizako biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- 2019-2020 ikasturterako Alkizako biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

BOSTGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HONDAKIN URAK ARAZTEKO PLANTAREN MANTENU LANAK AURRERA ERAMATEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik, Bidatek Ingenieria ambiental, S.L.-k Alkizako bida teknologiaren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko dagoen plantaren mantenu lanak egiten zituela 2018ko martxoak ezker. Mantenu zerbitzuaren lanak 36 hilabeteko iraupena izango zutelarik.

Ikusirik, Bidatek Ingenieria ambiental, S.L.-k Alkizako Udalarri jakinarazi diola ezin duela mantenu zerbitzu horrekin jarraitu, 2018 urtean sinatutako kontratua, 2019ko urriaren 31ko dataz bertan behera uzteko eskaera egiten dutelarik.

Ikusirik, bida teknologiaren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko dagoen plantaren mantenu lanak ezin direla guztiz Udaletxeko baliabide pertsonal eta materialekin egin.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Guzti hau ikusirik, TECNIPLAS enpresari aurrekontu bat eskatu zaio. Aurrekontuaren arabera, hilean ondorengo lanak egingo ditu:

PROPUESTA TECNIPLAS: TRABAJO MENSUAL

- Adecuación lecho.
- Tamices finos y gruesos. Limpieza+ mantenimiento.
- Decantador. Lavado y vaciado.
- Comprobación bombas.
- Control DQO
 - Una visita al mes 2 personas: 4h
 - Desplazamiento
 - Kms
 - Soporte telefónico
 - Analítica DQO

TOTAL: 355,00€ /mes

Incidencias: Tarifa 39€7h+km a 0,24+ material. Respuesta en 24/48h

Ikusita, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikuluaen arabera kontratu txiki baten aurrean gaude, zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

TECNIPLAS enpresarekin, Alkizako Udalak 2019. urtean zehar ez du 15.000€ko zerbitzu kontratuen urteko muga gainditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Bidatek Ingenieria ambiental, S.L. enpresak egin duen eskaera onestu, hau da, Alkizako Udalarekin sinatuta zuen kontratua 2019ko urriaren 31 datarekin bertan behera uztea.

BIGARRENA: TECNIPLAS enpresari, Alkizako bida teknologiaren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko dagoen plantaren mantenu lanak gauzatzeko kontratua esleitzea 4.260,00€ diru kopuruan, gastua 212.166.00.01 kontu sailaren kontura "Fosako saneamendu kontrola" egingo delarik. Zerbitzuak



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

12 hilabetetako iraupena izango du eta 2019ko azaroaren 1ean hasiera izango du.

HIRUGARRENA: Udal Aurrekontuetan partida nahikoa aurreikustea.

LAUGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmenu aipaturiko kontratua sina dezan.

BOSTGARRENA: Erabaki honen berri Bidatek ingenieria ambiental, S.L. -ri eta TECNIPLAS enpresari ematea.

ZAZPIGARRENPUNTUA

PERUALDEA 1 JABETZA KOMUNITATEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Perualdea 1eko jabetza komunitateak aurkezturiko idatzia, non dioen, Perualdea 1eko tximiniatan hainbat lan egin behar izan duela. Tximiniak Perualdea 1eko "elemento comun" bat denez, jabe guztien artean ordaindu behar dira bertan egindako lanen gastuak. Gastuak guztira 820,62 euro izanik.

Ikusita Alkizako Udalak Perualdea 1ean %27,46 partaidetza bat duela,

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Perualdea 1 jabetza komunitateari 225,34 eurotako ordainketa burutzeko onespena ematea, tximiniaren konponketa gastuaren kontzeptupean.

BIGARRENA.- 225,34 eurotako gastua onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

ZORTZIGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Alkate-Lehendakari jaunak bertaratuei jakitera ematen die, Jon Ander Azpiroz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Udalerrien Garapenerako



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Zuzendari Nagusia Alkizan izan dela. Izandako bilera horretan Alkizako herriak dituen beharrak aurkeztu zaizkio.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.45 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.